

GIL 40 Urretxuko harrobiko gabroak



Bertan behera utzitako gabro-harrobiaren ikuspegi orokorra.

Kokapena (bertan behera utzitako harrobiaren puntua):

• **Koordenatu geografikoak:**

Lat.: 43° 6' 43.14" N
Long.: 2° 19' 41.64" W

• **UTM koordenatuak:**

X: 554.655,15 m
Y: 4.773.469,41 m



Nola iritsi

Urretxu eta Zumarraga Azkoitiarekin lotzen dituen GI-631 errepidean, Urretxu herria amaitzen den tokian, 33. km-aren parean eta 30. km-raino gutxi gorabehera, Urola ibaia-
ren bi aldeetan.



Gabro-silla, egitura masibokoa, errepidean.

Deskribapena

GILa Urolaren haranean kokatuta dago, ibaiaren bi aldeetan, baina hobeto azaleratzen da Urretxu eta Azpeitia lotzen dituen errepidearen ertzean. Ibaiaz bestaldean, bidegorria dago, garai batean Urolako burdinbidearen (Zumarraga eta Zumaia lotzen zituen) trenbideak zeuden tokian. Errepideko azaleratzeak Urretxuko udalerriri dagozkio; ibaiaz bestaldekoak, berriz, bidegorrian zeharrekoak, Zumarragakoari, Urola ibaiak banantzen baititu bi udalerriak.

Sektore horretan sill-kopuru adierazgarri bat ageri da. Gabroz osatuta daude; haietako batzuk ustiatuak izan dira, eta, gaur egun, bertan behera utzitako harrobietan daude.

Sill-ak Cenomaniar-Turoniarreko material sedimentario, tuparri eta kareharri tupatsuetan sartzen dira; kilometro batzuetako luzera izan dezakete, eta 100 edo 150 m-rainoko lodiera aldakorra.

Egitura masiboa da, baina, tarte batzuetan, zutabe-disjuntzio larria garatu dute. Arroka faneritikoak dira, eta pikorra fina eta ertaina bitarteko tamainakoa da (3-4 mm, batez beste). *De visu*, testura intergranularra edo diabasikoa nabari da, eta intersertala izan daiteke mineral ferromagnesiano primarioak epidotara eta kloritara aldatuta daudenean (begi hutsez ezagutzen dira). Testuretan, badira zenbait mota: ertzeko faziesak, pikor finekoak, eta erdialdeko faziesak, anfibol- eta piroxeno-kristal azikularrak dituztenak, 3 cm-rainokoak. Begi hutsez ezagutzeko moduko mineraletan, anfibola, piroxenoa eta plagioklasa daude, gutxi-asko aldatuak; beraz, gabroak dira.



Gabro-sill zutabe-disjuntzioduna ibaiaz bestaldean; bidegorritik irits daiteke bertara.

Sill batzuek tuparri ostalariarekin kontaktua egiten duten tokian, egitura noduludun baten garapena ageri da (itxura batera mineralak ez badira ere); badirudi gabroak eragindako kontaktu-metamorfismo bat dela.

Sill gabrokoak arroka bolkanikoekin erlazio espazial estuan ageri dira, baina, oro har, askoz bolumen txikiagoan. Izan ere, errepidean zehar oso ondo azaleratzen dira arroka piroklastiko eta labikoak, nagusiki basalikoak; askotariko egitura eta morfologiak dituzte, hala nola kuxinak, kuxin-hodiak, kolada tabular masiboak, bretxa bolkanikoak etab., dike sinbolkanikoekin batera.

Errepideko bazterbidean zehar, arroka gabrokoetatik oso gertu ageri dira, baina ezin izan da egiaztatu bi arroka-moten arteko kontakturik.

Behatzeko punturik onena

In situ. Errepidean zehar, eta gutxi gorabehera harekiko paraleloan, bidegorria dago, eta handik egin daitezke behaketak.

Erlazionatutako GILak

- **Geografikoki:** GIL 41, GIL 37, GIL 38, GIL 39.
- **Gaiari dagokionez:** GIL 41, GIL 37, GIL 38, GIL 39.



Egitura noduluduna gabro-sillarekin kontaktuan dauden tuparrietan.

GIL-aren balorazioa

Balorazioa		Baxua	Ertaina	Altua	Oso altua
Interés científico	Geomorfológico			●	
	Hidrogeológico				
	Tectónico/Estructural				
	Estratigráfico				
	Paleontológico				
	Petrológico				●
	Yacimientos Minerales				
	Otros				
Interes ekonomikoa (erauzketa)			Iraganean ●	Potentziala ●	Martxan ●
Interes kulturala:					
Oharrak:	Bertan behera utzitako harrobi batzuk daude, eta gaur egun martxan dagoen harrobi handi bat ere bai.				

Bibliografia espezifikoa

- EEE.